

B

BARREN

TOKIKOM

INTTA





Santa Ana kalea, 7
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 011



- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- NAHI IZANEZ GERO, ORDENAGAILU BIDEZ TEST EGITEKO AUKERA EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK



LAGUNAK

KOLTXOI DENDA - TEXTIL HOGAR

**BISITATU GURE ERAKUSKETA,
HARRITUKO ZAITUGU.
LAGUNAK GURE DENDAK
BERRIZTATZEN JARRAITZEN DU.
Armairuak, arropategia, armairu-barrua...**



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Herrimina

Atzerrian zaudenean, zure herriaren eta, batez ere, familiaren falta sentitzen duzu. Une askotan herrimina sentitzen duzu. Eta nahiz eta egunero jende asko ezagutu, noizean behin bakardadeak hartzen zaitu.

Baina etxetik urrun zaudenean, ezin da gauza berri asko ikasteko eta ohitura desberdinez gozatzeko aukera galdu. Irlanda oso herrialde abegikorra da. Behintzat hori da nire sentsazioa. Eta horri esker, bakardade momentuak ez dira horrenbeste izaten.

Irlandara iristean, gauza askok txunditu ninduen. Herri isil eta lehorra zela uste nuen, baina, izatez eta eginez, guztiz kontrakoa agertu zitzaidan. Jendea beti laguntzeko prest dago. Berba egitea atsegin dute. Hasieran zeharo harritu ninduen, baina ez da arraroa autobusean ondoan duzun bidaiaria hizketan hastea, maiz eguraldiari buruzko komentarioren bat eginez (bai, hemen ere eguneroko hizketako gaia da). Eta kanpotarra zerala konturatzen denean, berehala zure egoeraz eta zure kontuez interesatzen da.

Harrigarria da zelan aldatzen den zure

eguneroko bizimodua kanpoan zaudenean. Eta Elgoibarren zuretzat pentsaezinak diren gauza asko, konturatu gabe, Dublinen ohitura bihurtzen dira. Leku guztietara oinez joaten saiatzen naiz, otordu berriekin ez naiz txarto moldatzen (lanegunetan arratsaldeko seiretan, afaria!), osagai berriak erabiltzen ditut janariak prestatzeko, ez dut egunero teleberririk ikusten edo egunkaririk irakurtzen...

Gauza txikiez gozaten ikasten badugu (paisaiak kontenplatu, abesti berri bat entzun, te edo garagardo bat hartu lagunekin,...) orduan bakardade momentuak ez dira horren ohikoak izango. Eta Elgoibarrera itzultzen naizenean nire egunerokoan aplikatuko dut hori.

Sandra Toledano



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Gauza txikiez gozaten ikasten badugu,
bakardade momentuak ez dira horren ohikoak izango”**



ESKERTZA

MANUELA ALKORTA AULESTIARTE

Prudencio Etxaniz-en alarguna

*Hil zara, baina biziko zara
zu beti gure gogoan.
Itxaropena dugu biltzeko
berriz zurekin zeruan.*

2010eko apirilaren 2an hil zen, 95 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



BETIRAKO ITXITA



Martxoaren 31n itxi zuten Guass-a –Original, azkeneko hilabeteetan–. Argi-ilunez jositako 30 urte bete ditu diskotekak, zeresan handia eman duten 30 urte. Denbora horretan, Guass-ak milaka lagun erakarri ditu Elgoibarrera, eta urte askotan, lehentasunezko lekua bete du musika elektronikoa edo “bakailao” musika maite dutenen asteburuetakoko agendan. Hala, parrandaren edo zoramen giroaren ikurra izan da gazte askorentzat, eta herriko giroaren gainbeheraren eragileetako bat beste hainbatentzat. Ez da harrizkoa, beraz, itxierak kolore guztietako iritziak sortu izana.

Ainara Argoitia

Aspaldian zebilen Guass-a itxiko zuten zurrumurrua. Iaz arte, hiru bazkiderena zen diskoteka, baina haietako batek Bergarako Jam aretoa izan zena hartu eta New Guass diskoteka berria zabaldu zuela jakin zenean, zurrumuru hark are indar handiagoa hartu zuen. Roberto Azpillagak, jabeetako batek, baina, gezurtatu egin zuen herrian bolo-bolo zebilen kontu hura. Gutxienez urriaren 31 arte zabalik izango zutela jakinarazi zuen, orduan bukatzen zelako lokalaren jabearekin hitzartutako errenta alokairua.

Ordurako, baina, Elgoibarko Udala ere hasia zen lokal jabearekin negoziatzen. Lokala hartzeko asmoa azaldu zien Udalak etxe jabeei, besteak beste, “aparkaleku bat

egiteko leku egokia zelako eta Guass-ak sortzen zituen arazoei irtenbide bat bilatzeko”, Alfredo Etxeberria alkatearen arabera.

Era berean, Hiri Antolamendurako Plan Nagusian ere, Deba ibaiaren alboan dauden enpresak eta lokalak botatzea proposatu zuen Udalak, inguru horretan etxebizitza berriak, aparkalekua eta parke bat egiteko. Hala ere, iraila aldera, Gizagune Fundazioak egindako elkarbizitza diagnosiaren emaitzak eskuan hartuta, zirt edo zart egiteko ordua iritsi zela erabaki zuen Udalak. Herritarrei, elkartei eta udal agintariei “lehen mailako arazoez” galdetu zieten ikerketa horretan, eta Elgoibar “bizikidetzara arazo larririk gabeko herria” izan arren, Guass-ak arazo dezente sortzen zituela erantzun zuten hiru aldeek.

“Trafiko arazoak, zarata handia, droga arazoak... arazo ugari sortu ditu Guass-ak, eta ertzainek ere behin baino gehiagotan esku hartu behar izan dute kontu honetan. Kexa ugari jaso ditugu, eta ez Deba kaleko bizilagunengandik bakarrik, baita Urasandikoengandik ere. Areago, Urasandikoak gehiago kexatu direla ere esango nuke”, azaldu du Rikardo Garate hirigintza zinegotziak. “Udalak lokal hori itxeko asmo irmoa zuela jabetu diren arte, ez dute neuririk hartu, eta alferrik da azkeneko zortzi hilabeteetan ezer ez dela gertatu esatea. Finago ibili dira ordu-tegietan, baina arazoak izan dira”, zehaztu du. Itxi aurreko azken asteburuan ere ertzainek esku hartu behar izan zutela gehitu du horren harira.

Pelouse dantzalekua erre zenean zabaldu zuten Guass-a

Agustin Alonso Guass-aren jabeetako batek ere onartu du "atzerago" Guass-ak arazo batzuk sortu izan zituela eta barkamena eskatu die bizilagunei, "sortutako eragozpenengatik". Sasoi batean kanpotik jende asko etortzen zela adierazi du horren inguruan, eta hori bera arazo bihurtu zela nabarmendu du: "Kanpotik jende asko datorrenean arazoak sortzen dira, baina inor ez etortzea bera ere arazoa da. Oreka bilatzea ez da erraza, baina azkenaldian hartua nion". Aurretik ere saiatu zela dio, etsipen keinu batekin. "Orain hamar urte hartu nuen, Elgoibarko giroa gainbehera zetorrelako. Saiatu nintzen giro hura apur bat zuzentzen, musika aldatuta-eta, baina gazteek beste zerbait nahi zuten, garaian garaikoa. Sekulako danbatekoa hartu nuen. Azkenak ez zuen funtzionatu".

Azkeneko zortzi hilabeteetan, baina, arazorik ez dela izan adierazi zion Alonsok BARRENI, diskoteka itxi aurreko barixakuan. "Ricardo Garatek berak ere aitortu zidan azkeneko zortzi hilabeteetan ez dela arazorik izan". Udalarari ere galdetu dio aldizkari honek, eta hauxe izan da alkateak esandakoa: "Irailetik hona jarrera aldatu dute, eta finago ibili dira ordutegiak betetzen, baina Udalak interesa agertu duen arte ez dute ezer egin".

Itxaropena, azken unera arte

Udalarekin izandako azkeneko bilera arte, Guass-a zabalik mantenduko zuten itxaropena izan duela aitortu du Alonsok, baina etsi duela nabari zaio: "Putada handia da. Elgoibarren 4:00etan ixten dituzte tabernak, eta zer egin behar dute gero gazteek? Nora joango dira?. *Acoso y derribo* izan da hau. Irailetik, urrian kontratua amaitzen zitzaigula jakin zutenetik, eginahalak eta bi egin dituzte Guass-a ixteko. Jende horri ahaztu egin zaio gazteak izan direla eta lotarako herria egin nahi dute Elgoibar".

Tabernariekin ere hitz egin du BARRENEK, eta Guass-a ixteak kalte egingo dietela esan dute denek aho batez. Tabernak ixteko ordutegia luzatzeko eskatu dute, bai izena eman dutenek, eta baita izena eman nahi izan ez dutenek ere. Hona hemen iritzi batzuk.

GUILLE MELICA, IRATXO TABERNAKO JABEA:

"Oso gaizki iruditzen zait Guass-a ixtea. Guass-ak ez zuen arazorik sortzen aspaldian, eta gero eta elgoibartar gehiago joaten ziren. Beste taberna batzuen inguruan dago orain arazoa. Guass-a itxita, jendeak kanpora alde egingo du orain, 4:00etatik aurrera ez dagoelako Elgoibarren gelditzeko beste aukerarik. Zapatu gauak hilda daude, 4:00ak oso goiz da ixteko. Itxiera ordua gutxienez 5:00ak arte atzeratu beharko lukete. Taberna guztiei, edo txandaka, baina ezinbestekoa da".

OSCAR TOLEDANO, LOJANTZIKO JABEA:

"Nik neuk ez dut uste asko igarriko dudarik Guass-a ixtea, baina oro har ostalaritzari kalte egingo dio. Bereziki jende gaztea ibiltzen den tabernek igarriko dute, Malape, Landa eta Toletzek, adibidez, eta kalean ere nabaritu da. 4:00etatik aurrera, Elgoibarren ez dago ezer, eta ordutegi hori motz gelditzen da. Jendea kanpora joaten da, eta hori gelditu egin behar da".

JAMOL BARHNE SITTOU, LANDAKO JABEA:

"Oso gaizki iruditzen zait Guass-a ixtea. Orain arte, Elgoibarrera etortzen zen jendeak bazekien tabernak itxitakoan Guass-a zeukala, baina orain, asko etorri ere ez dira egingo, eta nabaritu da. Udala oso gogor jarri da, eta nik neuk bi isun ordaindu ditut, batean hamar minutu beranduago ixteagatik, eta bestean, hogeita bost minutugatik. 4:00ak igarri orduko iristen dira; afaldu, bi trago hartu eta listo. Nola bidali jende hori gero tabernatik? Eibarrera alde egiten dute guztiek, eta hori arriskutsua ere izan daiteke. Eibarren, 4:00etatik aurrera Punto diskotekan daudenen erdiak elgoibartarrak dira. Oso haserre nago, eta Udalarekin biltzea ere gustatuko litzaidake. Argi daukat elgoibartarrek diskoteka bat baino nahiago dutela taberna normal bat, eta Udalak laga beharko liguke beranduago ixten, txandaka bada ere".

KARTUTXOKO JABEA

"Berandura arte dagoen taberna bat badago, jendea herrian gelditzen da, eta Guass-a ixteak kalte handia eragingo du, duda barik. Gaueko giroa asko jaitsi da aspaldian, eta honek ez du onik egingo".



Gazte jendea Guass-ean, zapatu gau batean.

Diskoteka ixteak bi ondorio zuzen izango dituela dio Alonsok: batetik, gazteek kanpora alde egin beharko dutela, "horrek dakarren arriskuarekin", eta bestetik, ostalaritzak hondoa joko duela. "Diskotekak bizimodu handia ematen zien tabernariei. Nik neuk ere ez nuen Guass-arekin dirurik irabazten, baina batean galtzen nuen bestean irabazten nuen [Lanbroa ere berea da]. Alde horretatik, babes handia jaso duela esan du. "Jende asko etorri zait mobilizatzeko prest dagoela esanez, baina nik ez dut borrokan has-teko gogorik".

Hiri Antolamendurako Plan Nagusian, Udalak Guass-a eta inguru lokalak eraisteko asmoa jaso duela jakin badaki Agustin Alonsok, eta horren aurrean zereginik ez duela onartu du. Ez du ulertzen, baina, plan horrek aurrera egingo duen jakin aurretik diskoteka ixtea. Zergatiak galdetu zaionean, erantzunik gabe gelditu da. Haren esanetan, Guass-aren inguruko giroa "zuzentzen" ari zen, eta azkenaldian elgoibartar asko sartzen ziren. "Orain hilabete inguru brigadako jendea ere hantxe izan zen, 50 urte bueltako jendea", zehaztu du. Proiektu berriak ere bazituen buruan. Orain, zapatuetan bakarrik zabaltzen zuten Guass-a, baina aurrerantzean, hilean behin-edo, ostiraletan kontzertu bat antolatzeke asmoa zuten.

"Guass-a dagoen lekuan aparkalekuak egin nahi dituztela esaten dute orain. Ez dauka zentzurik. Hor dute Pulimentos Paco eta inguru guzti hori ere", adierazi du Agustin Alonsok. Udalak, Guass-a bota eta OTA-TAO sistema bidezko aparkaleku bat egitea aurreikusita du.



"20:00etatik 8:00etara debaldekoa izango da printzipioz, eta hortik aurrera, ordaindutakoa", Rikardo Garatek aurreratu duenez. OTA-TAO horrekin, bi gauza lortu nahi dituzte: mugimendua sortzea eta alokairuko gastuei aurre egiteko dirua biltzea.

Abuztuan, 30 urte beteko ditu Agustin Alonsok barra atzean [17 urterekin hasi zen Errezabal erretegia eta 19 urterekin Guass-en jardun zuen zerbitzari], eta garaia aldatu egin direla dio, bere garaian Guass-a zabaltu zutenek Udalaren laguntza izan zutelako. Pelouse dantzalekua erre zenean zabaltu zuten Guass-a, eta Udalaren bitartez lortu zuten horretarako lizentzia, Alonsoren arabera. "Berandura arteko lokal bat behar zuen herriak, eta udal agintariek lortu zuten lizentzia, Jaurlaritzara eskatuta. Galdetu, bestela, Orueri [Jose Mari Oruesagastij] edo Gillermo Garateri".

AINHOA LODOSO, Guass ondoko bizilaguna:

"Garbi dago Guass-a ixteak ez duela dena konponduko, baina pauso handia da"

Guass-a itxi izana pozik hartu dute diskotekatik gertu bizi diren bizilagunek. Ainhoa Lodoso da horietako bat. Pare-parean bizi da, eta urteetan "direnak eta bi" ikusi ditu etxetik. Ahoan bilorik gabe hitz egin du, asko ikusi eta sufritu duenaren itxuran. "Bailara guztiko morraia etortzen zen hona, goraino jartzera, eta segurtasun arazo larriak sortzen ziren. Ikusita gaude jendea labana ateratzen, eta baita beisboleko batekin ere. Udaltzainak diskotekako atean, ezer egin ezinda. Ertzainek ere askotan esku hartu behar izan dute".

Hamaika sarekada ikusi dituztela dio, eta sufritu ere gogotik egin dutela nabarmendu du. Orain hamar urte alderik alde arraspatu zioten auto berria, eta "aurrez aurreko gogorra" izan zuen lokalaren jabeetako batekin. "Denetik esan nion. Diskoteka kanpoan gertatzen zenaren erantzukizuna ez zela euren esan zidan, baina haiek ere izan beharko dute ba erantzukizun zibila, ala? Guk gastu guztiak geure poltsikotik ordaindu behar izan ditugu, baina Guass-ak eragindako kalte morala inork ezingo digu ordaindu". Kalte materialen zerrenda amaigabea da, Ainhoaren ahotan. "Portaleko kristalak apurtu dizkigute, txahala bota, mehatxuak egin dizkigute... Geure etxean gustura bizitzen ere ez digute laga". Kexak jartzen ere aspertu direla dio, baina argi laga du salaketarik jarri ez izanak ez duela arazorik egon ez dela esan nahi. Orain bi hilabete inguru, autoko atzerako isplu bat hautsi zion neska batek, ostikoka. "Bizilagun batek kontatu zidan. Mozkor-mozkor eginda irten

omen zen Guass-etik neska, tente egoten ez zela, eta itxura batean, mutil lagunarekin haserre. Ostikoka hustu zuen barrua". "Aspertuta eta nazkatuta" zeuden bizilagunak. Baina ez bakarrik Deba kalekoak, baita Urasandikoak eta Pedro Muguruzakoak ere, Ainhoaren esanetan. "Errepide bazterrean aparkatzen zituzten autoak, eta musika topera jarri. Han ez zegoen lo egiterik. Leihok ere dar-dar egiten zuten".

Beste kontu bat ei zen lehen. "Orain hamabost bat urte, bakailoaren *mobida* hau sortu aurretik eta benetan Elgoibarko jendea joaten zenean, ez zen horrelako arazorik izaten. Egia da ni gazteagoa ere baintzela, baina etxean ez dut entzun horrelako arazoak izaten zirenik".

Orain, ordea, Elgoibarko giroa "erabat degradatuta" dagoela dio, eta herriak aldaketa bat behar duela. "Bilbok izan duenaren parekoa". Zapatuetako giroa aspaldi hil zela esan du, eta Guass-a ixteak kalte baino mesede handiagoa egingo diola herriari. "Garbi dago honek ez duela dena konponduko, baina pauso handia da". Elgoibar "gheto nazkagari" bat bihurtu dutela dio, "legezkoa ez den zerbait egiteko gainera". Haren esanetan, 25 urtetik gorako jendeak kanpora alde egiten du zapatuetan, "mozkor-mozkor egindako ume artean ez ibiltzeko".

Garbi dauka Guass-a ixtea ez dela nahikoa "Elgoibarren izena garbitzeko", eta kargu hartu dio Udalari, legea ez betearaztearren. "Eska diezaietela nortasun agiria San Frantzisko kalean dabilzane. Jende asko pasatu ere ez da egiten hortik zapatuetan".



Elgoibarren ez dago estalitako parke-rik: “Elgoibarrren ez dago estalitako parke-rik, eta Udalak hori kontuan hartu beharko luke obra berriak egiterakoan. Ubirtarte inguruan parke berria egin behar dute, eta nire ustez, momentu egokia izan daiteke, estalitako parkea egiteko. Beste herri batzuetan hasi dira horrelakoak egiten, Azpeitin esate baterako. Euria egiten duenean ez daukagu nora joan, eta ingurune honetan, euri asko egiten du. Nire proposamena kontuan hartzea espero dut”.



Kiroldegia ematen duen zerbitzua eta bazkide kuota prezioa ez datoz bat: “Kiroldegiko bazkide kuota urtetik urtera garestiagoa da, baina, nire ustez ematen duten zerbitzua ez da hobetzen. Igerileku handiko ura hotzegia egoten dela iruditzen zait. Aldagelen kanpoko aldean 26 edo 28 gradutan dagoela jartzen du, baina ez da egia. Ura epelagoa jarri behar da, batez ere, neguan. 123 euro ordaintzen dugu bazkide kuota, eta zerbitzu hobea merezi dugula iruditzen zait”.

Elgoibarek egunero izan beharko luke guardiako botika: “Lotsagarria da botikek guardia egiteko duten sistema. Sei eguneko epean, hiru aldiz joan behar izan nuen gauez kanpora. Bi aldiz Soroluzera, eta behin Mendarora, eta gainera, Mendaron itxita aurkitu nuen botika. Elgoibarren lau botika egona, lotsagarria iruditzen zait txandarik ez egitea. Araudia horrela dagoela esan didate, eta bete egin behar dutela, baina borondate apur batekin, Elgoibarren astelehenetik domekara izan genezake guardiako botika. Jende askori entzun izan diot kexa hau. 10.000 biztanlelik gora ditu Elgoibarek, eta kalitateko botika zerbitzua merezi dugu”.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibarkoizarra.com / 943-74 41 12

I. URTEURRENA

ITZIAR JUARISTI ZABALA



Gaur urtebete gure artetik joan zinenetik eta nahiz eta hasieran oso gogorra izan zen onartzea gehiago ez zintugula ikusiko, bizi zinen bitartean emandako maitasunak eta alaitasunak indarra ematen digute aurrera jarraitzeko.

*Beti egongo zara gurekin.
Maite zaitugu bihotza.
Muxu handi-handi bat.*

Etxekoak

2009ko apirilaren 6an hil zen. I. urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 10ean, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak aldezturik.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Eskarrikasko, Elgoibar!

Jaun Andereok,

Joxean Iñurrieta naiz, Plazentziakoa, eta orain arte elgoibartarrok udaltzain jantzita ikusi nauzue, baina prozesu luze baten ondoren, Gizarte Segurantzak lan hau utzi arazi dit, osasun arazoak direla medio, jakina. Orain 22 urte izan nuen trafiko istripu batean lepozurra hautsi nuen, eta geroztik lanean jarraitu badut ere, urteak pasa ahala okerrera egin du nire bizkar hezurrak.

1983an hasi nintzen Elgoibarren udaltzain. Gaur egun, 51 ditut, beraz 26 urte luze eman ditut udaltzain zerbitzuan. Elgoibarrek marka utzi du nire bizitzan. Bertako udaletxean ezkondu nintzen, bi alabaren aita naiz, eta hemen bizi izandako esperientziak nire heziketarako tresna baliagarriak eman dizkit. Harro esan dezaket ez diodala inori ezer gordetzen, eta gizakia naizenez, udaltzain lanean izan ditudan akatsengatik barkamena eskatu nahi diot nire jokaera dela eta minduta sentitu denari.

Urte askoan ez genuen izan sakeleko telefonorik ezta Internetik ere. Orduan joan zitzaizkigun hainbat herriko gazte, gehiegi eta gazteegiak, hies gaiztoak eramanda. Beraien senide eta lagunei nire lehen besarkada.

Bereziki, elgoibartarrendandik mires ten dudana elkarkidetzarako duzuen abilezia aipatu nahi dut. Inguruetan behintzat ez dut ezagutzen, Elgoibarrek duen tamaina izanda, hainbeste elkarte duen herririk: dantza, musika, perretxikoak, eliza, kirolak, komikia, argazkilaritza eta

abarreko arloetan Elgoibarren elkarte ugari daude. Txalogarria benetan.

Urte hauetan Elgoibarko elkarbizitza eta bere eboluzioa ezagutzeko aparteko ikuspegia izan dut, udaltzainon lana sarritan arazoak medio izaten baita. Eta arazoak ditugunean, gure emozionalitatearen puntak azaltzen ditugu. Esperientzia horrek ikasteko aukera paregabea eskaini dit, dena ondo eta bare ikusten dugunean ez bezalakoa. Beraz, eskerrik asko, Elgoibar!

Joxean Iñurrieta

Danimarkakoa baino kirats jasangaitzagoa

Sotana, abitu, intsentsu, urre, mirra, zeru eta infernu, bekatu kapitalak, haragizko bekatua, heriotza bekatua, bekatu larria, bekatu astuna, bekatu handia, bekatu mortala, jatorrizko bekatua, bekatu beniala...beniala? Ba al da horrelakorik, Aita Santu hori?

Errespetua eta beldurra, kontzientziaren harra eta esanekotasuna, esku birinak, umetoki bedeinkatuak eta ondo zurututako hilobiak, barkatu atrebentzia, inori min egiteko inolako asmo barik, gorde ezkutuan zure desioak, damutu zaitez hor ilunpean. Bete ezazu dagokizun penitentzia eta damutu zaitez, egingakoaz, pentsatutakoaz, amestutakoaz, bekatari hori!

Danimarkan zerbaiti kiratsa zerion. Hemen intsentsu usaina nahiko lukete nagusi eta infernuko sufrearena, noski. Infernua, besteontzat. Elizako ordezkariak zerua dute zain, hainbeste sufritu

ondoren, ondo merezita. Infernua, besteontzat. Orain eta gero.

Ernesto Sabatok bere eleberri batean dio mundua bera sortu aurretik zeruan gertatu zen gerra hura ez zuela Jainkoaren gudarosteak irabazi (San Miel eta konpainia), Deabruaren armadak baizik (Aingeru beltza eta konpainia). Eta Deabrua hain azkarra denez, lan handirik hartu barik sinistarazi zigula Jainkoa izan zela garaile. Orduetik hona Deabruak lasai asko betetzen dihardu bere lana. Ikusi al dituzue gaurko albisteak?

Pentsa, apaizak Deabruaren morroi, ai ene!

M.O.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704


E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Noemi Otegi



Ainara Sedano



Badira, bai, inguruan munda beti beltzez jantzia ikusten dutenak, eta baita dena argi-argi ikusten dutenak ere. Duela zenbait urte izan nuen lankide bat, inoiz ez zidana esan ongi zegoenik. Egunonak eman eta zer moduz zegoen galdetutakoan, bere erantzuna beti “*erdi-purdi*”, “*tira, banabil*” edo “*erdizka*” izan ohi zen. Ostiralak iristen zirenelako, nire baikortasun guztia berak xurgatzen zidan. Nekeak jota iristen nintzen etxera, ez lanagatik bereziki, lankidearen berezko ezkortasunagatik baizik. Nola bizi daiteke gauza guztiak ilun-ilun ikusten dituzunean? Etengabe mina eta nekea ahotan dituzunean? Zaila behar du izan, dudarik ez, baina gauza bat esango dizut, Ainara: ia okerragoa da hain ezkorra den norbaiten ondoan bizitzea. Inoiz katarroa hartuz gero, ondokoa beti zu baino okerrago egongo da.

“Nola bizi daiteke gauza guztiak ilun-ilun ikusten dituzunean?”

Animoz baju xamar zaudenean, izan ziur zure albokoak tristura handiagoa izango duela. Baina ez pentsa, ordea, ondo zaudenean zu baino hobeto sentituko denik; ezta pentsatu ere! laguna gaizki sentitzen denez, gainera, zuk ezingo duzu zure poztasuna agertu. Horregatik maite ditut hainbeste egunari alde ona ikusteko gai direnak, eta noizean behin gaizki egonda ere, bizitza tristetzen ez dutenak. Baikor edo ezkor izateak, eguna aldatzeaz gain, bizitza ere erabat aldatzen dizulako; bai, bai eta bai.

Buff, Noe! Zure testua irakurtzen ari naizela etorri zaizkit burura halako pertsona bat edo beste, eta badakizu niri zein sentimendu pizten didaten halakoek? Nagikeria.

Edozein plan egin eta horietako pertsonaren bat baldin badator ... “kaka zaharra!” pentsatzen dugu. Gaizki? Baliteke, zuzen jokatzuz gero, bakoitza den modukoa onartu beharko genukelako, eta bla, bla, bla...baina ze arraio! Beste guztiok egin beharreko horri pozez eta ilusioz begiratzen diogunean hor egongo da beste puntu beltz hori, muturra estutuz, munduko bidaiarik onena ere lau hitzekin zapuzteko. Eta sekula ezin haren gustua egin!

“Badakizu niri zein sentimendu pizten didaten halakoek? Nagikeria”


Denborarekin, nagusitzen goazen ahala, eta gure inguruan nahi dugun jendea aukeratzen goazen heinean, pertsona horiek alde batera uzten joaten garela sinetsi nahiko nuke; formalitateak alde batera uzteko eskubidea eta askatasuna urteekin irabaziko bagenu bezala. Edo agian da lotsa galtzen dugulako, eta gero eta gutxiago gaudelako mozolokeriak jasateko. Eta horrela ez bada, beti daudelako egiten edo esaten ausartzen ez garen zenbait gauza, zuk ondo ezagutzen duzun norbaiten gomendioa jarraitzea da hoberena: “Gustuko ez dituzun hitzak berlarri batetik sartu bezain azkar bestetik atera”; hots, hutsunea egitea!



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO



Real Santa Cruz,

Elgoibarko boliviarraren futbol taldea



Real Santa Cruz futbol taldea, partida jokatzeko hasi aurretik.

Elgoibarren bizi diren kanpotarren artean boliviarrarena da kolektibo handiena. Azkenaldian, gainera, kolektibo aktiboa direla erakutsi dute, eta hainbat ekimen jarri dituzte martxan, San Frantzisko kalean su hartu zuen etxean bizi ziren boliviarrari laguntzeko. Batetik, Boliviako janari tradizionalak dastatzeko jaia egin zuten Sallobenten, eta, bestetik, Real Santa Cruz futbol taldeak eskutitz bat idatzi zuen BARRENERA, elgoibartarrei eskerrak eman eta laguntza eskatzeko. Elgoibarko boliviarez osatutako futbol taldea da, eta Bizkaiko Afizionatuen Ligan jokatzeko dute. Bi jardunaldi falta dira denboraldia amaitzeko, eta laugarren postuan daude.

Orain dela urtebete inguru sortu zuten Elgoibarko boliviarrak Real Santa Cruz futbol taldea. Latinerikarrez osatutako futbol talde bat bazegoen Eibarren, baina desegin egin zen. Hala ere, talde hartako zenbait lagunek jokatzeko jarraitu nahi zuten, eta beste talde bat sortzea erabaki zuten. Elgoibarren bizi den mutillu batekin ekin zion lanari, eta herriko beste zenbait gazterekin osatu zuen Real Santa Cruz futbol taldea, 22 lagunekin. Gehienak Boliviako Santa Cruz inguruak dira, eta horregatik jarri zioten izen hori taldeari. Bizkaiko Afizionatuen Ligan jokatzeko dute, eta boliviarrak

izan arren, Elgoibar ordezkatzeko dutela esan dute harrotasunez. Hamar taldek jokatzeko dute txapelketan, eta liga amaitzeko bi partidak falta direla, laugarren postuan daude. Jose Reny entrenatzailearen esanetan denboraldia gaizki hasi zuten, eta hasieran galdutako puntu garrantzitsu asko ezin izan dituzte berreskuratu. Hala ere, pozik daude egindako lanarekin: “Liga irabaztea ez dugu lortu, baina goiko postuetan ibili gara. Kopa txapelketarako sailkatzea lortu dugu, behintzat”, adierazi du irribarez.

Entrenatzailearen esanetan, “diziplina” falta izan da taldearen gabeziarik handiena:

“Hasieran gaupasa eginda joaten ziren jokalariek partidetara, eta ez zuten batere ondo jokatzeko. Beraien artean haserretzen ziren, eta dena gaizki ateratzen zitzairen”, esan du Jose Reny-k. Bere lana izan da taldean diziplina ezartzea, eta horri esker, gauzak asko hobetu direla azaldu du. Waldir Martinez jokalariek taldea lagatzekoan egon zela aitortu du, “seriotasun” faltaren eraginez, eta entrenatzaileak eginiko lana gorapatu du.

Diziplinaren kontua aintzat hartu dute, eta astean hiru egunetan egiten dituzte entrenamenduak. Mintxetan entrenatzen dute, eta



azpiegitura oso ondo dagoela uste badute ere, berdegunea erabiltzeagatik ordaindu beharra "garesti" irteten zaiela adierazi dute. Bolivian futboleko jokatzeko erraztasun gehiago dagoela nabarmendu dute: "la auzo guztietan daude futbol kantxak Bolivian, eta ez dago ordaindu beharrik".

Ez dira jokalaria profesionalak, baina futboleko jokatzeko ilusioa soberan dute. Umetan hasi ziren futboleko, Bolivian: "Txiki-txikitatik hasten dira han umeak baloiari ostikoka, eta

oinez ikasi bezain laster hasten gara futbolekoan jokatzeko".


Helburua, Liga irabaztea

Aurten egindako lanarekin gustura geratu arren, gehiago nahi dute, eta horretarako, taldea indartu behar dutela adierazi du Jose Reny-k. Bilboko txapelketan jokatzeko diharduten hainbat boliviarrak begiz jota dituzte, eta datorren denboraldirako Santa Cruz taldera ekartzeko ahalegina egingo dute. Datorren

denboraldirako helburua zein den argi eta garbi esan du entrenatzaileak: Liga irabaztea.

Helburu hori lortzeko jokalariei ahalegina ezinbestekoa da, baina jarraitzaileen babesa ere garrantzitsua dela nabarmendu du entrenatzaileak: "Gure inguruko jendea pozez zorutzen dago taldearekin. Emaitza txarrak zirenean ez zen inor joaten, baina orain astero etortzen zaizkigu zaleak animoak ematera, eta horrek asko laguntzen du".

“Txiki-txikitatik hasten dira umeak Bolivian baloiari ostikoka”



Lorena Padilla
Su hartu zuen etxeko bizilaguna

Senarra eta bi seme-alabekin bizi zen Lorena Padilla suak hartu zuen etxean. Martxoaren 14an eguerdiko 14:30ak aldera piztu zen suak, baina zorionez ez zeudela etxean esan du Lorenak. Semea gaitxo zegoen, eta aste osoa Mendaroko Ospitalean pasatu zuen Lorenak, gau eta egun. Senarra etortzen zen etxera, baina domeka hartan, familia guztia Mendaroko zegoen. Etxeak suak hartu zuela esateko deitu zieten, eta Lorenaren senarra berehala etorri zen Elgoibarrera. Etxeko gauzak ateratzeko ahalegina egin zuela adierazi du Lorenak, "baina ezin izan zuen ezer egin. Etxea sutan ikustea oso gogorra izan zen".

Udalak laguntza gutxi eskaini diela azaldu du Lorenak: "Ez dakigu zentzuzko den Udalaren lana guri irtenbide bat ematea, baina Udalaren aldetik laguntza handiagoa espero genuen".

Boliviarrak oso solidarioak direla esan du, eta horrelako ezbeharrak gertatzen direnean elkarri laguntzeko ohitura dute. Elgoibarren boliviarrak jatorriko biztanle asko dagoenez, Lorena eta bere familiakoei laguntzeko Boliviarrak Jaia egin zuten, martxoaren 28an Ermuaran-Sallobenten. 10 eurotan, bi menu dastatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek, eta ez ziren gutxi izan. Eguraldi eguzkitsua egin zuen, eta jende asko bildu zen.

“Udalaren aldetik laguntza handiagoa espero genuen”



Giro ona izan zen boliviarraren jaietan.

Trenbidea estali, tren geltokia lurperatu eta ingurunea berritzeko proiektua aurkeztu du Udalak

Geltoki azpian 400 aparkaleku inguru egingo dituzte, bi solairutan banatuta



Karakoleko pasabide paretik hasi, eta Gure Bide elkartera arteko trenbide zatia estaltzeko asmoa erakutsi du Elgoibarko Udalak. Legealdiko proiekturik garrantzitsuenetakoa izango dela adierazi du Alfredo Etxeberria alkateak, eta bere esanetan, “herri guztiari eragingo dio”. Argi utzi nahi izan du baita ere, hau guztia momentuz proiektua baino ez dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Tren Sarearen Plan Sektoriala dago proiektu honen oinarrian. Besteak beste, Elgoibarko geltokia egokitzea proposatzen du plan horrek, eta hori baliatuta, ingurune guztia aldatzeko unerik egokiena dela uste dute Udalak.

Proiektuaren arabera, lur azpian eraikiko dute tren geltoki berria, eta, azpian, 400 aparkaleku inguru egingo dituzte, bi solairutan banatuta. Musika eskola ondoko haur parkean izango du sarrera geltoki berriak, eta aparkalekuena Karako-

laren azpian egingo dute. Aparkaleku horiek alokairuan eman go ditu Udalak, edo urte batzuetarako laga bestela, lurrazpiko aparkalekuak ezin direlako saldu.

Gaingan, pasealeku berria

Trenbidea estaltzeak gaineko aldean parke eta pasealeku berriak egiteko aukera eskaintzen du, Karakoleko pasabide paretik hasi eta Gure Bide elkartera dagoen pareraino. Bi al-tuera izango ditu pasealekuak, eta 300 metroko luzera.

Bestalde, San Roke auzora igotzeko dagoen aldapa kentzeko aukera aztertzen ari da Udala, eta eskailera mekanikoen bitartez lotzeko auzoa erdigunearekin. Lau gunetan jarriko dituzte eskailera mekanikoak: Osasun Zentroa eta Olaizaga kiroldegia bitartean, Artekalako eskailera mekanikoen jarraian, Inazio Bereziartua musika eskola parean eta San Inazio kalearen amaieran.

Azkenik, jarduera ekonomikorako eraikuntzak egitea ere aurreikusten du Udalak, trenbidearen gainean sortuko den gunen berrian. “Bizpahiru eraikin izango lirateke, estrategikoki jarriak, eta sekula ez Leku Ederreko etxeak baino altuagoak”. Udal zerbitzuak edo eskualdeko enpresa eta eragileak bertan kokatzeko leku aproposa izan daitekeela uste du Etxeberriak: “Ermua eta Deba artean trenak metro baten antzera funtzionatzen badu, eta horixe da 2011tik aurrera martxan jarriko den tranbia zerbitzuaren helburua, 50.000 lagun inguru bizi diren eskualdean puntu estrategikoa izango da gunen hori. Lanpostu berriak sortuko lirateke, eta egin beharreko inbertsio handiak finantzatzeko diru iturriak lortzeko modu bat ere izango da”, gaineratu du alkateak.



Pertsonaia **Miguel Fernandez**



Miguel Fernandez PSE-EEko zinegotziaren kargu uztea onartu zuten udalbatzaren martxoako azken osoko bilkuran. 2007an hartu zuen zinegotzi kargua, eta orain, lan kontuengatik, jaioterrira itzuliko da, Ciuda Realeira. Semeak, Joseba Fernandezek, ordezkatu du Elgoibarko Udalean, zerrendan bere ondorengo ziren beste bik uko egin ostean.

Martxoaren 25eko udal bilkuran hunkituta agertu zen PSE-EEko zinegotzia, eta Alfredo Etxeberria alkateak eskerrak eman zizkion "egindako lanagatik".

Izena **Gorosabel enpresa**

Apirilaren 26an banatuko dituzte Toribio Etxebarria sari entzutetsuak, Eibarren. Enpresa berriak sailean lau proiektu iritsi dira finalera, eta horietako bat da Mendaroko Gorosabel enpresak aurkeztutako Akualur proiektua. Enpresa munduarekin lotura duten Euskal Herriko saririk garrantzitsuenak dira Toribio Etxebarria sariak, bai antzinatasunagatik eta baita ematen dituzten sariengatik ere –100.000 eurotik gora–. Sorkuntza eta berrikuntza teknologikoa sustatzea da sarion helburua.

Irudia **Altzolako zeharbidea**

Altzolako zeharbidea aurten berriro nahi dute. Zubibai, Altzolako auzotarren elkartek, aspaldi eskatu zuen zeharbidea konpontzeko. Izan ere, eurek emandako datuen arabera, 2003tik 2007ra lagun bat hil zen, eta beste 49 zauritu ziren. Autoak oso azkar pasatzen dira, eta arriskua gutxitzeko, bidea estutzeko asmoa du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Era berean, auzoko sarrera-irteerak errazteko, errei berriak egingo dituzte, ez dagoelako errotonda bat egiteko beste lekurik.



Hamabi urteko zigor eskaera Arnaldo Otegiarentzat

Batasunaren aurkako 35/02 auzian auzipetuta dauden 40 laguntzako hamabi eta zortzi urte arteko espetxe zigorrak eskatu ditu Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskalak. Zigor eskaera handienak Arnaldo Otegi, Joseba Permach eta Rufi Etxeberriarentzat dira: hamabi urte. ETako buruzagi izatea egozten die. Beste hogeai auzipetuzentzat hamar urteko espetxe zigorra eskatu du, erakunde armatuko kide izatea egotzita. Eta gainerako hamazazpienezentzat zortzi urtekoa, ETari laguntza ematea egotzita.

Aurten 60 urte beteko dituztenen kinto bazkaria

Aurten 60 urte egingo dituztenen kinto bazkaria antolatu dute maiatzaren 22rako. Santa Klara komentuan hasiko duten eguna, hildakoen omenezko mezarekin, eta argazkia atera eta lunch-a egin ondoren, Loiolako Kiruri jatetxera abiatuko dira, bazkaltzera. Interesatuek maiatzak 10a baino lehen eman behar dute izena, eta horretarako, 80 euro ordaindu beharko dute Euskadiko Kutxaren honako kontu korrante honetan: 3035 0007 28 0071117144. Bazkaritan, Kutxan dirua sartzean emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Kongoko umeei laguntzeko zozketa

Urritasun fisikoak dituzten umeentzako barnetegi batean bizi diren Kongoko 50 umeri laguntzeko zozketa egingo du Jatabegintzak, "hirugarren munduko herrialde eta kristau elkarteei laguntzeko" sortu zuten taldeak. Ume horientzako janaria, eskola zein osasun zainketa-rako 5.000 euro behar dituztela eta, Gemma Monrealek emandako koadro bat zozketatuko dute. Erri-fak euro batean salduko dituzte, eta zozketa ekainaren 18an egingo da, 11:00etan, Kultur Etxean.

Martxoaren 31n itxi zuten Guass-a, hogeita hamar urteko ibilbidearen ostean.

Zer iruditu zaizu Guass-a betirako itxi izana?



Mertxe Solar
66 urte, etxeoandrea

Nik uste dut ona izango dela. Garbi dago herriko tabernerri bizia emango ziela, baina iruditzen zait herriari mesede egingo diola. Jende asko etortzen zen kanpotik, moz-kortzera-eta. Sikiera beste zerbaite-ra etorriko balira... Izugarritzko iskan-bila sortzen zen kalean.



Asier Arenal
29 urte, ikaslea

Bere alde onak eta txarrak ditu Guass-a ixteak, beste edozerk be-zala. Nik uste bizilagunak poztuko zirela, baina beste aldetik, taberna-riei min handia egin diezaiekela us-te dut. Aitortu beharra daukat ni neu ez nintzela Guass-era asko jo-aten.



Nerea Gil
23 urte, ikaslea

Nik uste dut Guass-aren ingu-ruan zebilen jende gehiena kanpo-koa zela, eta ez dut uste elgoibarta-rrek horrenbeste igarriko dutenik. El-goibar aspaldian dago hilda. Gazte batzuk joaten ginen, tabernak ixtean ez dagoelako beste aukerarik, baina aukeran tabernak nahiago ditut nik.



Roberto Arandela
38 urte, tenplaketako langilea

Ostalaritzari kalte handia egingo diola uste dut, jende asko ekartzan zuelako kanpotik. Garai batean, beste giro batekoa zenean, gusta-tzen zitzaidan neuri ere, baina azke-naldian... Bizilagunek eskertuko du-te itxi izana, baina egia da baita az-kenaldian lasaiago zebilela.

I. URTEURRENA

LIDIA CHARLES GUTIERREZ

2009ko apirilaren 6an hil zen, 68 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 10, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan.

Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



I. URTEURRENA

ANDONI ARREGI IRIZAR

2009ko apirilaren 4an hil zen.

“Betirako gure oroimenean eta bihotzean”

Familia eta lagunak



'Antologia de la Zarzuela' obra ikusteko aukera izango da gaur zortzi, hilaren 16an, Herriko Antzokian

Masa Coral del Ensanche de Bilbao talde entzutetsuak taularatuko du

Masa Coral del Ensanche de Bilbao *Antologia de la Zarzuela* taularatuko du gaur zortzi, hilaren 16an, Herriko Antzokian. 21:30ean hasiko da emanaldia. Sarrerak egunean bertan erosi ahal izango dira, lehiatilan, eta baita aurrez ere, Servikutxako Kutxazainetan, www.kutxa.es webgunean, edota 943 001 200 telefono zenbakira deituta.

Orain ehun urtetik gora sortu zen Sociedad Masa Coral del Ensanche de Bilbao taldea, eta bere lehenengo pausoak Albiako zabalguneko baserri batean eman zituen. Orduan, Armonia del Ensanche izena zuen, baina 1903an izena aldatu zuen eta bere errepertorioa zabaldu. Hasieran, gizonezkoek osatzen zuten taldea, ahots baxuek, baina 1934an emakumeak sartu ziren taldean. Hori iraultza handia izan zen, taldekideen esanetan. Izan ere, musika koral klasikoa alde batera laga, eta zarzuelekin hasteko bidea eman baitzuen horrek, handik urte gutxira. Talde hau aurrez ere izana da Elgoibarren, *El Caserio* lanarekin, eta orduan sekulako arrakasta izan zuten, goraino bete zelako Herriko Antzokia.



Elgoibarko Klub Deportibokoek babarrunak prestatu zituzten martxoko azken zapatuko ferian



Elgoibarko Klub Deportiboko kideek herriko baserrietako produktuekin egindako babarrunak prestatu eta banatu zituzten martxoko azken zapatuko ferian. Elgoibarko hiru baserriren batutako babarrunak sartu zituzten eltzean, eta odolki, txorizo eta gainerakoekin batera banatu zituzten, Nafarroa plaza inguruan jarritako txosnan. Sekulako giroa sortu zen, eta jende ugari batu zen. Elgoibarko Klub Deportibokoei Trinitate Jaietako nagusien danborradak hartuko die lekukoa orain, eta garagardo jaia antolatuko dute apirilko azken zapatuko feriaren bueltan.

Festa feminista egingo dute Gaztetxean, apirilaren 17an

Elgoibarko emakumeen asanbladak festa feminista antolatu du hilaren 17rako, Gaztetxean. Kontzertuak, antzerkia, monologo saioak, eta poesia emanaldiak izango dira aurreratu dute, eta egitarau osoa prest izan bezain laster jakinaraziko dutela azaldu dute. Nolanahi ere, gau osorako egitaraua prestatzen dihardutela zehaztu dute.

Monologoak, Lojantititik Herriko Antzokira

Lojantzi tabernakoek eguenero antolatzen zituzten monologo saioak tabernan, eta izan duten harrera ikusita, Herriko Antzokian probatzea erabaki dute. Hilaren 23rako antolatu dute lehenengo saioa. Hiru umorista igoko dira oholtzara: Jesus Angel Arriet, Mar eta Gonzalo. Sarrerak salgai daude dagoeneko, Lojantzi tabernan, 8,5 eurotan.

MAIALEN GURRUTXAGA

Grupo Eibar taldeko atezaina

Jubenil mailako Grupo Eibar taldeak hirugarren urtez jarraian irabazi du Euskadiko Txapelketa. Elgoibarko kiroldegian jokatu zituzten partidak, eta herritarren babesarekin, txapelketako hiru partidak irabazi zituzten. Maialen Gurrutxagak, gainera, txapelketako atezain onenaren saria jaso zuen.

“Espainiako Txapelketa irabaztea gustatuko litzaiguke, baina ez da erraza izango”

Badirudi Euskadiko Txapelketari neurria hartu diozuela. Zein da Grupo Eibar taldearen ezaugarri onena?

Taldeko jokalarri guztiak lagunak gara. Gehienak koadrila berekoak dira, eta oso ondo ezagutzen dute elkar. Oso giro ona daukagu, eta hori izango da, akaso, daukagun onena. Taldeko giro ona igartzen da jokoan. Nik bi urte daramatzat taldean, baina besteak aspaldi hasi ziren elkarrekin jokatzen. Taldea ondo osatuta dago.

Nola bizi izan duzue Euskadiko Txapelketa?

Emozioz beteriko egunak izan dira, baina, aldi berean, urduri egon gara. Kiroldegia jendez gainezka egon da, eta oso babestuta egon gara uneoro. Ikusleek asko animatu gaituzte, eta horrek lasaitzen laguntzen du. Etxean jokatzeak baditu abantailak!

Etxean jokatzea, beraz, klabea izan da txapelketa irabazteko?

Garrantzitsua da, baina kanpoan jokatu izan bagenu ere, irabazteko aukerarik izango genukeela uste dut.

Txapelketako hiru partidak irabazi zenituzten, eta gainera, atezain onenaren saria jaso zenuen.

Bai, ez nuen espero. Banekien gol gutxien jasotzen duen atezainari saria ematen ziotela, baina sari banaketa hasi zenean ez nintzen gogoratzen. Nire izena entzun nuenean oso urduri ipini nintzen, eta ezin nuen sinistu! Ilusio handia egin zidan, eta oso pozik hartu nuen. **Eskubaloiko atezaina izatea zaila dela diote. Nola erabaki zenuen zuk atezain izatea?**

Kasualitatez izan zen. Eskolarteko txapelketan jokatzen genuen, eta Lorea Gabilondo etorri zen, federatutako eskubaloia taldeak sor-



tzeko asmoa zeukatela esanez. Jokalari izateko asmoz aurkeztu nintzen, baina probak egin zizkiguten, eta atezain izateko dohainak nituela ikusi zuten, nonbait. Horrela hasi nintzen, eta gaur arte. Sus-turen bat baino gehiago izan ditut, eta baloia noizbait gogor jo izan dit aurpegian, entrenamenduetan batez ere.

Hilabete amaieran Espainiako txapelketa jokatuko duzue. Zein da zuen helburua?

Txapelketa irabaztea gustatuko litzaiguke, baina ez da erraza izango. Ahal dugun guztia egingo dugu. Orain dela bi urte hartu nuen parte Espainiako Txapelketan, eta oso maila altua dago. Taldeak indartsuak eta serioak dira. Gainera, ez dugu herritarren babesik izango, eta hori igarriko dugu. Gurasoak eta jarraitzaile batzuk etorriko dira, baina ez da etxean jokatzea bezalakoa izango.

Nola ikusten duzu eskubaloia Elgoibarren?

Ondo. Zaletasun handia dago, eta nahi duenak eskubaloian jokatze-ko aukera handia dauka. Lehen futbolak zeukan herrian indar gehien, baina azken urteotan eskubaloiak ere indar handia hartu du. Talde asko daude, eta jende askok jokatzen du.

Astean hiru entrenamendu eta asteburuan partida. Nola uztartzen dituzue eskubaloia eta ikasketak?

Nahiko ondo moldatzen gara. Azterketa garaian malgutasun handiagoa izaten dugu, eta ikasteko egun gehiago lagatzen dizkigute. Gustura joaten gara entrenatzera, eta guretzat ez da sakrifizioa. Datorren urtean unibertsitatera joango naiz, eta ez dakit nola moldatuko naizen.

Eguaztenean hasiko dira Morkaikok antolatutako bideo emanaldiak

Shisha Pangmari buruzkoa izango da lehenengo saioa

Morkaiko mendizale elkarteak sei mendi emanaldi eskainiko ditu aurten, Udaberriko Asteazkenetan Mendi Emanaldiak izeneko zikloan. Datorren eguaztenean izango da lehenengo saioa, eta bertan, Koke Lasa mendizaleak Shisha Pangmari (8.027 m) egindako espedizioari buruzko hitzaldia eskainiko du. Maiatzaren 19ra arteko eguaztetenetan izango dira hitzaldiak, 21:30ean hasita, musika eskolako auditorioan.

Laugarren urtez antolatu du Morkaikok mendi emanaldien zikloa. Ikus-entzunekoez gain, mendi eskiko materialaren inguruko tailerra izango da aurtengo berrikuntza nagusia. Arkaitz Irureta eta Iker Leonardo elgoibartarrek Pierra Menta eski probari buruzko hitzaldia emateaz gain, eskiatzeko materiala zaindu eta konpontzeko gomen-dioak eskainiko dituzte.



Eñaut Izagirre hirugarren postuan sailkatu da Euskal Herriko mendi eskiko erlojupeko proban



Eñaut Izagirre eskiatzaile elgoibartarrak Regil eski lasterketan hartu zuen parte, Europako Mendietan jokatu, eta Euskal Herriko erlojuaren kontrako proban hirugarren postuan sailkatu zen, junior mailan. Sailkapen nagusian, bestalde, Iñigo Larizek zazpigarren postua eskuratu zuen, eta bera izan zen lehenengo elgoibartarra. Bestalde, Ekaitz Isasik Tavascaneko Free Ride Snow Board lasterketan hartu zuen parte, martxo hasieran. Eskiatzaile elgoibartarra txapelketatik kanpo egon da aspaldian. Hala ere, sasoi onean dagoela erakutsi zuen, eta hirugarren postua eskuratu zuen.

Txapeldunen Ligarako bi sarrera zozketatuko ditu CD Elgoibarrek

CD Elgoibarrek bi sarrera zozketatuko ditu maiatzaren 22an Madrilgo Santiago Bernabeu futbol zelaian jokatu den Txapeldunen Ligako finala ikusteko. Bigarren saria bi lagunentzako 500 euroko afarria izango da Eibarko Chalcha jate-txean, eta hirugarrenak 300 euro jasoko ditu. 12.000 errifa jarri dituzte salgai Elgoibar eta Mendaroko zenbait tabernetan. Klubarentzako dirua lortzea da zozketaren helburua. Igoera fasera sartzeko postuetatik gertu dabilta Jagoba Arrasateren mutilak, eta lortuz gero, faseak dituen gastuei aurre egiteko erabiliko dute dirua: joan-eto-rrietako gastuak, jokalariei ordaindu beharreko ordainsariak eta beste zenbait gastu aurreikusi dituzte Klubeko arduradunek, eta diru-poltsa betetzeko antolatu dute zozketa.

Beñat Urain, Zornotzako Udaberri Klasikan

Normandiako Tourra eta Lizarrako Indurainen Omenezko Lasterketa jokatu ostean, Zornotzako Udaberri Klasikan parte hartuko du Beñat Urain mendarorarrak, domekan. Urainek bigarren urtea du Orbean, Euskaltelen harrobiko taldean. Zornotzan hasi eta bukatuko da lasterketa, eta Euskal Herrira etorri ohi diren talde sendoenak bertan izango dira. Euskal Herriko Itzuliaren ondoren, txirrindularitzaren euskal asteari amaiera emateko proba biribila da.

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapateria, 10

11:00 Elgoibar – Eskoriatza (Jub. mut.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapateria, 10

16:00 Pneumax Elg. – Arrasate (Kad. mut.)

17:30 Beristain Elg. – Usurbil (Jub. mut.)

LANA

ESKAERA

- Emakumea lan bila. Garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko. Edozein ordutegi. ☎ **638 344 377**
- Umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko eskaintzen da emakume bat. ☎ **660 511 781**
- Neska gaztea eskaintzen da adineko jendea zaintzeko. Interna moduan aritzeko ere prest. Esperientziaduna eta erreferentzia onekoa. ☎ **677 155 611 / 943 030 828**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Interna edo orduka. ☎ **662 247 584**
- Emakumea lan bila. Helduak eta haurrak zaintzeko edo elkarte eta tabernetan garbiketa lanak egiteko esprest. ☎ **618 163 061**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest: elektrizitate lanak, peoi... ☎ **606 612 834**
- Neska lan bila. Umeak edo nagusiak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta sukaldari laguntzaile aritzeko. ☎ **680 516 240 / 943 531 514**
- Emakumea garbiketa lanak egin eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo lanaldi osoan. ☎ **686 234 612**
- Emakumea pertsona nagusiak edo haurrak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientziarekin. ☎ **697 702 158**

- Emakumea garbiketa lanak edo haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ **609 217 705**
- Neska gaztea eskaintzen da orduka lan egiteko: garbiketa lanetarako zein haurrak eta nagusiak zaintzeko. ☎ **663 786 976**
- Emakumea lan bila. Nagusiak eta umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiteko. Interna edo externa. Orduka. ☎ **626 329 979**
- Neska nagusiak edo haurrak zaintzen interna lan egiteko prest. ☎ **637 973 856**
- Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zaintzeko, tabernetan edo jatetxeetan lan egiteko, nahiz garbiketa lanetarako. Egunez edo gauzez. Asteburuan ere bai. ☎ **626 914 904**
- Gizonezkoa sukaldari laguntzaile, igeltsero laguntzaile edo banatzaile lanak egiteko prest. ☎ **649 962 997**
- Gizonezkoa sukaldari laguntzaile, igeltsero laguntzaile edo banatzaile lanak egiteko prest. ☎ **638 344 377 / 943 530 795**
- Emakumea lan bila. Haurrak eta nagusiak zaintzeko prest. Orduka, egun osoz edo interna. ☎ **618 052 967**
- Mutil gaztea lanerako prest. Sukaldeko laguntzaile izateko, garbiketa lanak egiteko, igeltsero laguntzaile aritzeko edota supermerkatuko kutxan lan egiteko. ☎ **638 465 098**
- Emakumea edonoiz edozein lan egiteko prest. ☎ **626 914 904**

ESKAITZA

- Emakumea behar da goizez 8:00etatik 9:30etara etxeko lanak egiteko eta umeekin laguntzeko. ☎ **600 466 573**

ETXEBIZITZAK ETA LOKALAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Etxea alokatzen da Santa Ana kalean. 3 logela. 525 euro (gastuak barne). ☎ **629 314 242**
- Basarte auzoan pisua salgai, garajearekin. 77 metro koadro. Eguzkitsua. Egoera onean. Oso aukera ona. ☎ **647 372 033**
- Elgoibarren pisua salgai. Erdigunean, altzariekin, berritua, eguzkitsua eta igogailuarekin. 150.000 euro. ☎ **686 344 252**
- Alokairuko pisu baten bila nabil Elgoibarren edo Eibarren. ☎ **651 663 342**

GARAJEAK ETA MOTORRA

- Garaje itxia alokatzen dut Jausoron, udaletxetik gertu. ☎ **628 764 686**
- Lambretta bat saltzen da, 1969.urtekoa. 150 Li. Egoera onean. ☎ **654 949 123 / 943 531 771**
- Kotxe txikiarentzat garajea salgai edo alokatzeko, Bernardo Ezenarro kalean, Eroski azpian. ☎ **665 720 977**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira **BARREN**en eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak
Astebete : 5 euro
2 aste : 8 euro
3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 10 euro
2 aste : 17 euro
3 aste : 25 euro



ESKERTZA

JUANA URANGA ARMENDARIZ

2010eko martxoaren 26an hil zen.
 Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
 hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





• Zorionak, **Idoia**, gaur 4 urte egin dituzulako. Familia-koen, eta bereziki, anaia Yuriren partez.



• Zorionak, **Rokei**! Zazpi urte handi! Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Aimar**, hilaren 5ean 3 urte egin zenituelako. Gurasoen eta familia-koen partez.



• Zorionak, **Markel**, zapa-tuan bi urte egingo dituzu-lako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Yune**, 6 urte egin zenituelako apirilaren 7an. Idoia, aita eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **Nahia**, printze-sa, pasa den igandean 4 urte egin zenituelako. Muxu bat familiako guztien partez.




• Zorionak, **Yune**, printze-sa, asteazkenean 6 urte egin zenituelako. Muxu po-tolo asko, amatxoren eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Nora**, 2 urte handi egin dituzulako. Fa-miliakoen, eta bereziki, Naia, Jone eta Oinatzan partez.



• Zorionak, **Xabier Arriola**, zure 6. urtebetetzean. Pa-txo handi bat Oierren partez.



• Zorionak, **Asier**, hilaren 1ean 8 urte bete zenitue-lako. Familiako guztien partez.



• Zorionak, **Einer**, zure 3. urtebetetzean. Muxu bat etxekoan, eta bereziki, anaia Junesen partez.



• Zorionak, **Naroatxo**! Do-mekan 3 urte! Zelako nes-ka handia! Ondo pasa! Mu-xuak, bereziki Eider eta Ju-lenen partez.



• Bazen ordua, bikote! Azkenean iritsi da eguna. Ondo pasau bihar, zuen ezkontza egunean. Koadrilakoen partez.



• Zorionak, **ballarinak**! 2 urte egingo dituzue, eta dantza pila bat egingo dugu.

Erretratu bakarrek agurra: 2 euro.
Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro.
Handia: 6 euro. Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia eguazten eguerdia baino lehen ekarri behar duzu. BARREneko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

BIRZIKLATZEKO BEREIZTU

EDUKIONTZI



HORIA

Plastikozko ontziak, latak eta brick motako ontziak



DEBABARRENA
 MANKOMUNITATEA

Kartoizko eta paperezko ontziak, egunkariak eta aldizkariak bakarrik

EDUKIONTZI



URDINA



ZURE ESKUETAN DAGO BEREIZTEA, BIRZIKLATZEA GUZTIAN ESKUETAN DAGO

OKINDEGIA

11 domeka **BOLINTXO**

FARMAZIAK

	24 ORDUZ
9	Zabaleta
10	Etzeberria (<i>Errosario</i>)
11	Etzeberria (<i>Errosario</i>)
12	Ibañez
13	Garitaonandia
14	Etzeberria (<i>Santa Ana</i>)
15	Fernandez
16	Yudego

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik
www.elgoiBARREN.net



9 barixakua

Erakusketa

19:00 Olio erakusketa
Joel Sistiaguereen olio erakusketa, Kultur Etxean.
Hilaren 25era arte egongo da ikusgai. Astelehenetik zapatuta (19:00-21:00), eta jai egunetan (12:00-14:00).

11 domeka

Antzerkia

16:30 'Zer duzu negarrez, Marie?'
Julio Perugorria produkzioak taldeak *Zer duzu negarrez, Marie?* izeneko antzezlanak taularatuko du. Herriko Antzokian.

13 eguztina

Tailerra

16:45 Sexualitatea eta ahalmentzea
Haizeak antolatuta, emakumeentzako sexualitateari eta ahalmentzeari buruzko tailerra izango da. Haizeak Pedro Muguruzako eskolan duen lokalean.

14 eguztina

Ikus-entzunezkoa

21:30 Shisha Pangma
Morkaiko mendizaleak antolatuta, Shisha Pangma mendiari buruzko hitzaldia izango da, musika eskolako auditorioan. Hizlaria, Koke Lasas.

16 barixakua

Aisialdia

17:00 Kiribilka egitasmoa
Elgoibarko Izarrak antolatuta, haurrentzako eta gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

Musika

21:30 Zartzueta
Masa Coral del Ensanche de Bilbao taldeak taularatuko du, *Antología de la zarzuela* obra. Herriko Antzokian.



GAZTELEKUKO EKINTZAK

BARIXAKUA 9

Irteera

ZAPATUA 10

Ibixita

DOMEKA 11

Karaokea 17:00

MARTITZENA 13

Eskulanak 17:00

EGUAZTENA 14

Wii, jolas berriak 17:00

EGUENA 15

Sukalde txokoa 17:00



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 9

Kirol jarduera, Mintxetan 16:00

ASTELEHENA 12

Filma: *G-Force* 17:30

MARTITZENA 13

Hileko jolasa, *Los Mamfos* 17:30

EGUAZTENA 14

Bingoa 17:00

EGUENA 15

Karta jokoak: Kakalardoaren entsalada 17:30

«Up in the air»

9, barixakua: 22:15
10, zapatua: 19:00/22:15
11, domeka: 19:00
12, astelehena: 21:30

Estatu Batuak, 2009. Zuzendaria: Jason Reitman. Aktoreak: George Clooney, Vera Farmiga. 109 min. Enpresetan finantza murrizketak egiten eta langileak kaleratzen aditua

da Ryan Bingham (George Clooney), eta alde batetik bestera bidaiatzen dabil denbora guztian. Horieta-ko batean, emakume bat ezagutuko du eta zer edo zer aldatuko da.



Gure gomendioa

Zer duzu negarrez, Marie?

Apirilak 11, domeka, Herriko Antzokian

Hartzaindegiko nagusiak eta langile batek Marie izeneko umetxoarekin duten harremana kontatzen dute antzezlanean. Umea gaiztoa da, arazoak sortzen dizkio zaintzaileari, eta gainerako umeak zaintzeko lanetan trabak jartzen ditu. Umea baretzeko hainbat trikimailu erabiliko dituzte, baina umeak maitasuna behar duela konturatuko dira. Umeentzako, baina aldi berean, familia guztiarentzako emanaldia da, *Zer duzu negarrez, Marie?*. Aktoreen lana eta txotxongiloen ikuskizuna uzartzen dira. Domekan izango da antzerkia, 16:30ean hasita, Herriko Antzokian.



Zerikasi

IKASTAROAK

Coaching ikastaroa

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Euskaraz
Hasiera data: Apirilak 10
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 821 426

Photoshop, hastapena

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelaniaz
Hasiera data: Apirilak 12
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 208 444

Lehenengo laguntzak

Norentzat: Interesatuentzat
Hizkuntza: Gaztelaniaz
Hasiera data: Apirilak 12
Non: Eibarren
Izena emateko: 943 176 248

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

II. URTEURRENA

JENNIFER RIVERO FLORES



*Nire barnean zure bihotz gozoaren
zatitxo bat bizi da, maitea.
Zeurearekin batera, lo gelditu zen,
agur esan zenidan egunean.*

Betirako gure bihotzean



2008ko apirilaren 10ean hil zen

Erretratu zaharra



1964

Aste honetako erretratuak Nikolas Zulaikak lagatakoa da. 1964. urtean aterata dago, Mendaron, Garagartzako plazan. Duela urte batzuk arte, jai handiak egiten ziren Garagartzan. Argazki hau Santixo egun batez ateratakoa da ustez, eta Mendaroko gaztetxoak ageri dira itsulapiko apurtzen, Anjel apaizaren ondoan. **Ezkerretik eskumara:** Jose Luis Zulaika, Jose Luis Eizagirre, Jose Luis Olazabal, Anjel Bazterretxea abadea, Jose Angel Lopetegi (†), identifikatu gabea, Antonio Garate, Juan Jose Eizagirre, eta Juan Luis Garate. Argazkiaren jabeak ez du identifikatu itsulapiko apurtzen ari den mutikoa.

Gure berbak **Hiztegixa: interjekzio batzuk**

- ◆ **ÑO!**: Harridura adierazteko erabiltzen den interjekzio eufemistikoa. –*Ño! Eztok merkia! Joñol* ere bai.
- ◆ **OJO!**: Zerbaitekin edo norbaitekin kontuz ibiltzeko jakinarazpena; mehatxu modura ere erabil daiteke. *Ojo euki! Ojo ibili! Ojo! Ojo gero, e! Ez hari kontuz ibili!*
- ◆ **OTXOKUARTO!**: Aurretik esan dena ukatzeko erabiltzen den interjekzio mezpretxuzkoa. –*Ama, eman dirua. –Ze diru eta ze otxokuarto! Guazen etxera!*
- ◆ **POR AKI!**: Zerbaite edo norbaite zakarki uko egiten zaionean erabiltzen da. *Oiñ illia hartu, bai ederki, seguru neskak eta han autobusian zixezenian da. Fuu! Illia hartu, baiña jun hari por aki!*
- ◆ **PITORIK EZ JAKIÑ (entendidu)**: lagunarteko esapide arrunta. Ezer ere ez jakin, ulertu... *Gerora konturatu nitzuan etzakixela pitorikan ere!*
- ◆ **POTRO-HAUNDI, potro-haundixa**: lagunarteko esapide arrunta. Pertsona gibel-handiei esaten zaie, zakarki.
- ◆ **POTROJORRAN EGON**: lagunarteko esapide arrunta. Probetxuzko ezer egin gabe egon. *Hori beti daok potrojorran. Etxok kolpe zorrik jotzen egun guztian.*

- ◆ **POTROZORRI, potrozorrixa**: lagunarteko adjetibo arrunta. Zi-ria sartzen duena. Zentzu figuratuan erabiltzen da. *Hau dok per-tonia potrozorrixa!*
- ◆ **PRIMERANI!**: Oso ondo, testuinguru adierazgarrietan.
- ◆ **PUFI!**: Baita **buf** ere. Aspergurak edota nekeak eragindako interjekzioa.
- ◆ **RUSIA!**: Zenbait adinekok erabiltzen duten biraoa: **La Rusia!**, **Mekauen La Rusia!**
- ◆ **TIRAI!**: Zerbaite ukatzeko erabiltzen den interjekzioa. –*Zenbat ikexiko gendun, ba? Atzera ahiztuta ere gehixena. –Normala. –Tira! Hiruroeta hamar urtekiñ, ze nahi dok pa?*
- ◆ **TOMA EIÑI!**: Uko egin. *Horrek anaixok gaztetan etxaudezak la-re motzian ohittuta, eta toma eitte jauek lanari! / Toma* bera barkarik ere bai: “*Ni honekin enajiek*”. *Toma* Jesusek!
- ◆ **YA LO KREO**: Mintzakideak esandakoa berresteko erabiltzen da, lagunarteko jardun zaindugabea. –*Sei pezeta zuan biájia zeera, “ida y vuelta”. –Ta orduan sei pezeta asko izango zan... –Sei pezeta! Jolin! Ya lo kreo!* Perpaus osagarriak ere goberna ditzake: –*Astelen goizeko seiretan ertenda dao, hamendikan. Zu, hori gogorra da, e? –Ya lo kreo dala gogorra!*

Jesus Mari Makazaga



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14-16 behea
☎ / Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

García

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihok

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

Lanusta

Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323
www.lanusta.com



Lorezaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 - MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Elbar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Elbar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76/608 774 032



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



ZER DUZU NEGARRIZ, MARIE?

Haurrentzako antzerkia,
Julio Perugorria Produkzioak.

APIRILAK 11, IGANDEA
16:30ean, Herriko Antzokian.



ZARZUELA

ANTOLOGIA DE LA ZARZUELA



ORKESTRA ZUZENEAN

Masa Coral
del Ensanche de Bilbao.

APIRILAK 16,
OSTIRALA
21:30ean,
Herriko Antzokian.